

EUSKARAREN E.K.B. IHARDUNALDIAK



1984 - Ekainean

Euskal kulturaren batzarrea

Ekainaren amaieran ospatuko dira Euskal Kulturaren Batzarreak antolatutako Euskararen Ihardunaldiak. Hori dela eta, gure egunkarian, EGUNONeko orrialde hauetan astelehenero eskeiniko diegu toki bat Ihardunaldi-Topaketa-Kongresu delako horren nondik norakoak ager ditzaten. Orriotan argitaratuko ditugun lanak orokorrak izango dira, ihardunaldiei buruzkoak gehienbatean. Sail bakoitzak ordea izango du bere tokia ARGIA astekarian, astero astero eta guk-riken batera, sail barruko zehazkizunei buruz aritzeko.

Orain dela urtebete pasatxo jaio zen EKB (Euskarazko Kulturaren Batzarrea). Urtebete honetan oinez ibiltzen ikasi du; eta orainxe hitzegiten hasteko dago.

Batzarrea abiaburu

Batzarrearen asmoa darama EKBk izenean bertan. Euskal kulturako sail ezberdinetako talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinaziorako eta elkarlanerako sortu zen.

EKB ez da sigla bat, beste hainbat siglen artean; ez da "supersigla" bat ere, talde jakin batzuren edo sigla ezagun zenbaiten "azpitik" nahiz "gaitenik" legokeena.

Hiru aldetatik definitzen da EKB: a) Euskal Kulturari darduten sailletako talde eta elkarte herritarren elkarganatze eta koordinatze zerbiztu oinarrikoa; b) Euskararen eta euskal kulturaren defentsarako, berreskurapenerako eta eragintzarako erakunde irekia; c) Euskararen eta euskal kulturaren normalkuntzarako ekintzak, eskakizuna eta planak bateratzeko plataforma zabaldua.

Batzarrea zen abiaburua orain dela urtebete; batzarrea da helburua orain ere. Horregatik datorren ekainean EKBk egingo dituen ihardunaldiei izen horixe emango zaie: Euskal Kulturaren Batzarrea.

Batzarkideak

Bi ardatz ditu EKBren erakundeak: a) Kultur Sailak; b) Herri eta auzoetako sailarteko taldeak.

Euskal Kultur sail bakoitzeko talde eta elkarten arteko

koordinazioa da EKBren oinarria, batetik. Horrela bakarrik bidera daiteke sailen arteko koordinazioa. Honako sail guzti hauek zabaltzen da EKB: Eskola - Unibertsitatea - Helduen Alfabetatzea Euskalduntzea - Liburugintza - Antzerkia - Prentsa - Zinema Bertsolaritza - Irratia/Telebista - Kanta/diska - Administrazioa Lantegietako euskal batzordeak - Euskal Herriaren Euskaraz...

Herrietan eta auzoetan euskararen defentsarako eta euskal kulturagintzarako eraturik dauden kultur sail ezberdinen arteko taldeak dira EKBren beste ardatz eta oinarria. Horrelako hainbat talde bateratu eta bateratzailek lanean dihardu beste hainbat lekutan.

Euskal Kulturako talde, elkarte eta sail bakoitzak bere autonomia eta nortasuna gordetzen ditu EKBren barruan. Horien batzarrea da EKB eta guztiak dira EKBko batzarkideak. Horregatik, datorren ekaineko ihardunaldietan kultur sail guztiak hartuko dute parte: Euskal Kultur Sailen arteko Batzarrea izango da.

Batzarbidea

Hainbat aldetatik joan behar du mamituz eta agertzuz euskal kulturaren batzarreak: Ekintza bateratuta, mobilizazio zabalera, errebendikazio eutsitan, azterketa eta kritika etengabea, plangintza orokorrean.

Ja urtebete darama EKBk ekaineko Batzarrea prestatzen. Hortik joan da, hain zuzen, urte honetako elkarlan nagusia eta elkarbiderik beinena. Lau helburu izango ditu Batza-



Makina bat egin beharko da korrika oraindik ere euskara eta euskal kultura aurrera aterateko. Ekaineko Ihardunaldiak ere bide horretatik doaz.

rreak: a) Euskal Kultur sail bakoitzean euskara normaltzeko egoera eta arazoak aztertzea; b) Euskararen plangintza orokorrerako oinarriak jartzea, ardatz nagusiak definitzea eta bide handiak markatzea; c) Sail bakoitzean ondoko urteetan euskara normaltzeko egin beharreko urratsak eta lanak programatzea, bai eta sail guztiak, bateraturik, aurrera eramane beharreko ekintza globalak koordinatzea; d) EKB erakundeak zabaltzea, gorpuztea eta finkatzea.

Kultur sail bakoitzean landutako txosten zabalek osotuko dute Batzarreko dossierra: hau izango da Batzarrearen oinarria. Hainbat txosten edo dossier partzial landurik daude: Irakaskuntzarena, Alfabetatze/Euskalduntzearena, Antzerkiarena, Bertsolaritzarena, Zinemarena, Unibertsitatearena, Euskararen normalkuntza sozialarena; beste zenbait burutzeaz daude: Euskararen modernizazioarena, Liburugintzarena, Prentsa, Irrati/Telebista, Administrazioarena.

Sail bakoitzean ari dira eztabaidatzen, zorrotzen eta borbiltzen saileko txostenak; bestaldea, Batzarrean, dossier partzialen artean dossier orokor eta bateratura iristea da asmoa.

Aldi berean, herrietan eta auzoetan TAN eta programa zabaltzeko eta EKB taldeak eratzeko hainbat ekintza egingo dira datorren bi hilabeteotan.

Azterketarako izango da ekaineko Batzarrea; baina dinamiko, praktikoa, zabal eta herritarra izango da. Euskararen eta euskal kulturaren normalkuntzaren plangintzarako izango da Batzarrea.

Batzarrea burutu

Batzarrea bera ez da helburua; baina Batzarrearen helburuak lortuko badira, Batzarrea burutu beharra dago. Horregatik, batzarre-asmoarekin abiatu zen EKBk, Euskal Kulturaren Batzarrea egingo du datorren ekainaren azken egunetan.

Hala ere, nolabait dagoeneko irekita gelditzen da ekaineko Batzarrea, herrietako eta auzoetako ekintzen bidez eta kultur sailletako dossierak lantzearen eta eztabaidatzearen bidez. Ekaineko ihardunaldiak prozesu horren burutzea besterik ez dira izango.

Tarte honetan Batzarrearen berri zehatzagoak emanez joango da EKB: prentsa bidez, herrietako eta auzoetako ekintzen bidez eta kultur sailetako bileren bidez.

EKB



Suarez joan zen. Sozialistak etorri eta euskaraz den oro, nahiz eta zertxobait hobetu, baztertua izateaz gain zokoratua dago.



Euskal Kulturaren Batzarrean sail guzietan parte har dezaten nahi da. Administrazio barruan diharduten langileek ere badute nahiko lan administrazioa euskalduntzen.